

EUSKAL HERRIA

# Bihar hasiko da MIDASen I. Mintegia, Andoainen

BERRIAko eguneroko jarduna eta Euskal Herria ezagutuko dituzte hizkuntza gutxituetan lan egiten duten zortzi kazetarik

AMAGOIA IBAN - DONOSTIA

Europar hizkuntza gutxituetan argitaratzen diren egunkarien elkarte da MIDAS eta 26 egunkari batzen ditu. Bertako kide zen *Euskaldunon Egunkaria* eta bertako kide da BERRIA. *Egunkaria*-ren aurkako polizia operazioa gertatu zenean, elkarte horrek gogor kritikatu zuen euskarazko egunkari bakarra itxi izana, eta, euskarazko prentsaren omenez —eta BERRIARI ongietorria emanez— MIDASek Euskal Herria aukeratu du bere

lehendabiziko mintegia antolatzeko.

Elkarteko kide diren hedabideetako kazetarien artean esperientziak trukatzeko eta kideon testuingurua ezagutarazteko da mintegiaren helburua. BERRIARI egokitu zaio trukaketa horretan lehendabiziko urratsa egitea, baina bide horretan urtero pauso gehiago ematea da MIDASen nahia.

## Parte-hartzaileak

Italiako alemanezko *Dolomiten* egunkariko Rainer Lechner; Finlandiako suedierazko *Vasabladet* kazetako Styg Nigard; Italiako eslovenierazko *Primorski Dnevnik*-eko Daniel Radetic; Kataluniako *El Punt*-eko Maria Dolors Belles i Sabata; Finlandian suedieraz argitaratzen den *Jakobstads Tidning* egunkariko Petter Granroth; Eslovakian hungarieraz plazaratzen duten



MIDAS-EK IAZ HELSINKIN EGIN ZUEN BATZARRA, eta bertan jaso zuen *Euskaldunon Egunkaria* itxi izanaren berri. Euskarazko prentsari omenaldia egin asmoz, Euskal Herrian antolatu dute I. Mintegia. BERRIA

*Uj Szo* egunkariko Katarina Jukaszova; katalanezko *Diari de Balears*-eko Joan Riera; eta MIDAS elkarteko idazkari nagusi Gunther Rautz etorri dira Euskal Herrira mintegian parte hartzera. Atzo heldu ziren eurretako batzuk, eta gaur etorriko dira azkenak.

Bihar murgilduko dira guztiak MIDASen I. Mintegian, Andoaingo Martin Ugalde Kultur Par-

kean, 10:00etan. BERRIA argitaratzen duen EKTren Administrazio Kontseiluko idazkari Joanmari Larrartek egingo die harrera bertan. Jarraian, egunkari honen sorrera eta proiektu komunikatiboa azalduko die Martxelo Otamendik. Behin hortik ostirala bitartean, Euskal Herriko gizarte eta politika eragileak (Kontseilua, Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Kultura

Saila, Batera, Demoak, Seaska, AEK...), euskarazko komunikabideak (Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Gure Irratia, EITB...) eta kultura ezagutzeko aukera izango dute.

BERRIAko erredakzioaren funtzionamendu orokorraren berri asteartean jasoko dute, eta ostegunean eta ostiralean sailka ezagutuko dute eguneroko lana, bertatik bertara.

## PASAIKO SUPERPORTUA



## Jaizkibel ez dagoela salgai adierazi dute

Jaizkibelgo Superportuaren Aurkako Taldeak deituta, 80 lagun inguru bildu ziren atzo Pasaia (Gipuzkoa) udaletxearen aurrean *Pasaia Udala entzun: Jaizkibel herriarena da eta ez dago salgai* lelopean. Ekimenaren helburua Pasaia Superportuaren proiektuak kaltetuko dituen Jaizkibelgo

itsaslabarrak babestea zen. Izan ere, eremu horretan Portuko Agintaritzak hainbat pista eraiki ahal izateko zundaketa geoteknikoak egingo ditu, Udalaren onarpenarekin. Pasaia Udalak eremu hori babestu egin behar duela eskatu zuten. Ondoren, manifestazioa egin zuten. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

OTSAILEAN  
**MUNDUARI BIRA**  
 ESKAINTZETAN **80**

<b>LONDRES</b>	<b>270€</b>	Prezioa pertsonako
Otsaila - Martxo. Bilbotik hegazkina. 3 egun-2 gau. 44.924 Pts		
Turista Hotel Gorena. Gosariak barne.		
<b>BUDAPEST</b>	<b>350€</b>	Prezioa pertsonako
Otsaila - Martxo. Bilbotik hegazkina. 3 egun-2 gau. ***Hotela. Gosariak barne. 58.235 Pts		
<b>EGIPTO</b>	<b>594€</b>	Prezioa pertsonako
Martxo 26. Bilbotik hegazkina. 4 gau. El Cairo. ***Hotela. Gosariak barne. 3 gau. Gurutzaldi. Mantenu osoa. 98.833 Pts		
<b>CANCUN</b>	<b>899€</b>	Prezioa pertsonako
Otsailaren 28ean. Madriletik hegazkina. 9 egun-7 gau. ***hotela. Dena barne. 149.581 Pts		
<b>COSTA RICA</b>	<b>1.390€</b>	Prezioa pertsonako
<b>ZIRKUITU.</b> Otsaila. Martxo. Madriletik hegazkina. 12 egun-10 gau. 1ª Hotelak. Gosariak barne. 231.277 Pts		
<b>INDIA-NEPAL</b>	<b>1.659€</b>	Prezioa pertsonako
Martxo 28. Hegazkina madril eta bartzelonatik. 14 egun-12 gau. Lehen mailako luxuzko hotelak. Hauek barne: gosariak. 2 bazkari. 2 afari. Monumentuetarako sarrerak barne. 276.034 Pts		
<b>AUSTRALIA-POLINESIA</b>	<b>4.355€</b>	Prezioa pertsonako
<b>AUSTRALIA-TAHITI+BORA BORA.</b> 31tik Martxo. 724.611 Pts		
Bartzelona eta Madriletik hegazkina. 16 egun-12 gau.		

**Viajes Eroski**  
 Bidaiak

Grupo Eroski

Kalitatea Bermatuta

eskaintza gehiago [www.viajeseroski.es](http://www.viajeseroski.es)